

## MINTZALDIA SARAN – ITXARO BORDArentzat

Jaunak eta andereak, egun on!

*Zazpi auzo zabalik, eta lau eliza,  
Hamasei bide luze, oihan eta larre:  
Zeru urdinak gora, haurreko geriza  
Gelditzen da umilki, ixil Oragarre. (1)*

Etxekoek eta Oragarreko haur lagunek Bernadette deitzen zutena, gaztetxo hutsa zen oraino bere lehen artikuluak igorri zizkiolarik *Herria* astekariari. Hasian hasi, ezin gelditua zuen. Eta Emile Larre zuzendaria, kontexko! Funtsean, euskaldun amerikano batek jakinarazi ziolarik gazte merezimendutsu baten eskertzeko Ameriketako bidaiaren ordaintzeko prest zela, Emile Larrek berehala Amikuztar nextato gaztea hautatu zuen.

Bidaia liluragarri hark, dudarik gabe, emendatu baitzion idazteko sukarra, irakurleek gero eta maizago ikusten zuten arrotza zitzaien izen bat: “Itxaro”. Kuriosenek laster jakin zuten “Itxaro” itxaropena hitzaren laburpen bat zela eta esperantza erran nahi zuela. Euskaltzale argituen baitan aldiz egiazko esperantza bat sortu zen, frango fite ikusi baitzuten “xarnegu” eskualdeko luma xorrotxak eginen zuela bide.

Bere burua *Herria* kazetan poxi bat tinkian sendituz, Itxaro Bordak eta Lucien Etxezaharretak *Maiatz* aldizkaria sortu zuten eta kasik konda ezinak dira aldizkari literarioan idatzi dituen poemak, kontakizunak, bertsuak, ipuinak, itzulpenak, etb.

*“Trixe naiz nere bertsuekin,  
nahiago nuke sekula gehiago  
beste bat ez egin”.*

Hara zer aitopen ezezkorra egiten zuen Itxaro Bordak *Bizitza nola badoan* bere lehen liburuko aitzin-solasean.

Literatura nik baino biziki hobeki ezagutzen duen Koldo Izagirre idazleak honela esplikatzen du Itxaroren ibilbide literarioa:

*“Bordaren tristura etsipen sortzailea baita, lehen emaitza hartan ageri zituen dohain ederrak azkarki landu ditu geroztik liburuz liburu, obra zabal eta ugaria osatu arte. Tristetahun hau, ordea, ez da poetika negarti baterako estakurua edo bizitzarekiko akidura literarioa. Bordak beregain hartzen ditu, poeta orok eritasun gisa pairatu behar duen izaera minberarekin batera, emetasunaren kontzientzia eta Euskal Herri alienatu batenganako hastio kritikoa. Iparraldeko egoera sozio-politiko eta linguistikoaren etsipengarria nitasun atzar eta aldi berean kolpatu batean txertatzen da. Honenbestez, poemek isurtzen duten goibeltasuna konformismoa inarrosteko modu berezi bat baino ez da.” (2)*

Hau entzun eta gero, zer erran besterik? Zinez aberatsa dela Itxaro Bordaren emaitza, kitzikatzaila ere, jarraituki beti zerbait berri eskaintzen baitigu eta pentsatzen dut *Amaia Ezpeldoi* detektiboaren abenturen ondotik, beste pertsonaia bat asmatuko digula, “100 % *Basque*” eleberriarekin Euskadi saria irabazi zuen idazleak.

Zeren erreferentzia bilakatua baitugu gure baxenabartar-lapurtarra. Googlen Itxaro hitza jotzen duzueneko, Itxaro Borda agertzen baitzaizue eta berehala ikusten duzue haren liburuen zerrenda luzea, prentsa-artikuluak, etabar... zerrenda hain luzea non denen aipatzen hasten banintz, bazkaldu gabe gelditu behar baitzenukete.

Bestalde, Euskal Herriko anitz artistek musikatzen eta kantatzen dizkiote poemak, hala nola Peio Serbielle, Maddi Oihenart, Niko Etxart, Benito Lertxundi, Amaia Riousepeyrous, Pier-Pol Bercaits, Hinka edo Izarrak taldeak, besteak beste.

Buruan dugu ere oraino duela bi urte idatzi zuen *Gerezien denbora*, lehen pastoralara urbanoa. Zurgintzan, altzairugintzan, burdingintza lanean ari zirenen historian sartu zitzaigun Itxaro, eta pastoralara ederraren ikusteko parada ukan genuen, Ezkandrai elkartearen bitartez, Baionan, Itsasun eta Barakaldon.

Nahi nuke gehitu Itxaro beti prest dela abentura berrietan sartzeko, idaztearen maitasuna publiko zabal batekin partikatzeko eta hedatzeko,

frangotan berak eginez itzulpenak edo hitzari musika uztartuz. Itxarok poesia eta musika Bat egiten ditu.

Adibide gisa, aipa nezazke “*Gu(haur)arrotzak*” “*A nous-mêmes étrangers*” egitasmoa, David Souza eta Orchestre Maigre-eko musikariek eraman zuena, edo “*Ogella line*”, Bizkaiko Ispaster plaia pollitean hazi poemak jendeenganatzeko, Mylene Charrier irakurlea eta hainbat musikari dituelarik lagun.

Erreferentzia hitza erabili dut lehentxago. Baina beste hitz bat ere egokia iruditzen zait : anbaxadorea.

Urrungo norbaitek Euskal Kultur Erakundeari galdegiten diolarik euskal idazle bat nahi lukeela holako edo halako tokian literaturaz mintzatzeko, behin baino gehiagotan gertatu zaigu anbaxadore gisa Itxaro Borda igortzea. Eta eskerrik beroenak bihurtzen dizkiot.

Funtsean, oroitzapen pertsonal batekin bukatuko dut. Francesco Zarzana, Italiar idazle batek gomiturik, Itxaro Borda eta biak joan ginen Modene hirira, hango literatura saloiaren antolatzaileek Euskal Herria ohoratu nahi baitzuten. Hara arribatzean, Itxarok erran zidan Enzo-Ferrari auto erakustokia bisitatu nahi zuela. Egia erran, poxi bat harritu nintzen hastapenean, baina aitortu behar dut loriatu ginela, hain ziren autoak ongi lerrokatuak eta argi distiranteak...

Eta goiz honetan, preseski, Axularren herrira etortzean, aurten Biltzar saria errezebitzen duena gogoan, bat batean gogoratu zait, gure euskal literaturako Ferraria, arima salbu eta, zu zaitugula Itxaro Borda!

Milesker.

Pantxoa ETCHEGOIN

2016-03-28

(1) “Oragarre Run” - XX. mendeko poesia kaierak – Susa, 2000.

2) XX. mendeko poesia kaierak – Susa, 2000.